



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dosier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailak 21

Vitoria-Gasteiz, 21 de julio de 2020

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK KOLONBIAKO EGIAREN BATZORDEAREKIN LANKIDETZAN DIHARDU ERBESTERATZERA BEHARTUTAKO BIKTIMEI BURUZKO TOPAKETA BAT ANTOLATZEKO

- **Lankidetzaz UPV/EHUko HEGOA-Nazioarteko Lankidetzaz eta Garapenari buruzko Ikasketak Institutuaren bitartez egingo da**

Eusko Jaurlaritza lankidetzan arituko da Kolonbiako Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Ez Errepikatzeko Batzordearekin, Bilbon egingo den **"Erbesteari, kanpoko biktimei eta itzulitako biztanleei buruzko egia aldeko topaketa"** antolatzeko. Lankidetzaz UPV/EHUko HEGOA-Nazioarteko Lankidetzaz eta Garapenari buruzko Ikasketak Institutuaren bitartez egingo da. Hain zuzen ere, Gobernu Kontseiluak 150.000 euroko laguntza bat eman dio Institutu horri, eta Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak kudeatuko du.

Gaur onartutako laguntzari esker, erbesteratutako behar izan zuten eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainiako Estatuko gainerako lurraldeetan eta Europako beste herrialde batzuetan (Frantzia eta Belgika, batez ere) bizi diren gatazkaren biktimei inguruko mandatua bete ahal izango du Egia Batzordeak.

Bestalde, HEGOA Institutuak laguntza ematen dio Kolonbiako batzorde horri erbesteratutako biktimei arreta emateko. Era horretan, babes bermatzen zaie Kolonbiako gatazkaren testuinguruan muga nazionalak zeharkatu zituzten eta indarkeria orokorren, barne-gatazken eta giza eskubideen urratze masiboaren ondorioz bizitza, segurtasuna edo askatasuna arriskuan jarri zuten pertsona guztiei.

Kolonbiako Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Ez Errepikatzeko Batzordea gatazka amaitzeko eta bake egonkor eta iraunkorra eraikitzeko Azken Akordioaren esparruan sortu zen. Akordio hori Kolonbiako Gobernuaren eta Kolonbiako indar armatu iraultzaileen artean izenpetu zen 2017an. Aldi baterako eta judizioz kanpoko mekanismo gisa eratu zen, gatazka armatuaren esparruan gertatutakoaren egia ezagutzeko, gatazkaren barruan egindako urraketak eta arau-hausteak argitzen laguntzeko eta gizarte osoari gatazkaren konplexutasunaren inguruko azalpen zabal bat eskaintzeko.

Eta beharrezkoa da, halaber, gatazka errefuxiatuta eta/edo erbesteratuta dauden biktimei duen eraginaren eta haien eskubideen urraketaren berri ematea eta gatazka armatuak pertsonekin batera mugak zeharkatu zituela azaltzea.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK “ELKARLAN” SARIEN SEIGARREN EDIZIOA DEITU DU, BALIO PUBLIKOA SORTZEKO GAI DIREN GIZARTE-PROIEKTUAK AINTZATESTeko

- Guztira 36.000 euro banatuko dira herritarrek sustatu eta beraien berrikuntzagaratik nabarmentzen diren lau ekimen sozialetarako
- “*Elkarlan*” sarien helburuetako bat da, halaber, Euskadin balio publikoa batera sortzen ikasteko eta arlo horretan elkarlanean aritzeko sarea finkatzen joatea

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Eusko Jaurlaritzaren balio publikoa batera sortzeko proiektu berritzaileetarako «Elkarlan» sarien seigarren deialdia (2020. urtea)*” onetsi du. Sari horien helburua da balio publiko partekatua sortzea modu berritzailean sustatzen duten proiektuak aintzatestea, gizarteko erronkak eta beharrak asetzeko. Gainera, bosgarren edizioan egin zen bezala, Eusko Jaurlaritzaren helburua da, halaber, sariaren bidez “*beste eragile batzuek parte hartzeko bide emateko formulak transferitzen laguntzea, horrela, Euskadin balio publikoa batera sortzeko ikaskuntza- eta elkarlan-sarea finkatzeko*”.

2020ko *Elkarlan* sariak sei jarduketa-eremu hauetakoren batean balio publikoa sortzeko berrikuntzagaratik nabarmentzen diren lau ekimen sozial aitortuko dituzte:

- Osasuna
- Ingurumena
- Garapen ekonomikoa
- Ikaskuntza-kultura
- Gizarte-kohesioa
- Gobernamentua, kultura demokratikoa eta erabaki publikoetako partaidetza

Gainera, proiektuek, funtsezko ezaugarri gisa, diseinu- eta ezarpen-fasean, pertsonak eta kolektiboak ahalduntzeko prozesuak aktibatzen duten gaitasuna erakutsi beharko dute.

Aurkeztutako proiektuek ezarrita egon behar dute edo pilotu-fase aurreratuan. Hautaketa-batzorde batek –bertan aurreko deialdiko saridunek parte hartuko dute– baloratuko du proiektuek balio publikoa eta soziala sustatzea, ahalduntze-eredu izatea, izaera berritzailea izatea, pertsona eta kolektiboak ahalduntzeko prozesuak aktibatzen modua beste eremu edo lurralde-espazio batzuetara eramateko gai izatea, haien diseinuan eta ezarpenean genero-ikuspegia jasotzea eta aurkezpenean kalitatea, koherentzia eta argitasuna erakustea.

36.000 EURO

Deialdia zuzentzen zaie eskabidea aurkezteko egunean helbide soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta beren jarduera nagusia bertan egiten duten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei, eta haiei baino ez. Hautatutako lau proiektuetako bakoitzak honako sari hau izango du:

- 6.000 euro, proiektu onenaren aintzatespen gisa.
- 3.000 euro, jardunbide egokiak transferitzeko prozesuari aplikatzeko.
- Kanpo-aholkularitza beste eragile batzuei transferitzeko prozesuan, lurraldeko beste eremu edo espazio batzuetan aplikatzeko.
- Saritutako proiektua informazio-bide eta komunikabideetan zabaltzea.

Hautagaiak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, EHAAan argitaratzen denetik, eta eskabideak modu elektronikoa aurkeztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa bidez.

GOBERNUAREN HELBURU ESTRATEGIKOA

2016-2020 gobernu-programak honako helburu hau aurreikusten du, besteak beste: administrazio irekia, gardena eta eraginkorra, herritarren parte-hartzea sustatuko duena eta, ekimen gisa, 2014an onetsitako [*Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri*](#)ko konpromisoak betetzea sustatuko duena. Liburu Zuriak, besteak beste, honako konpromiso hau jaso du: *“esperientzia berritzaileak garatzea sustatzen da, gure kultura demokratikoan berriak izan eta parte-hartzeari bide emateko formulak esperimentatzeko aukera ematen duten proiektu pilotuentzako laguntzaren bidez.”* “Elkarlan” sarien deialdiak, hala, helburu estrategiko horri erantzuten dio.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

8,6 MILIOI ARRANTZAREN SEKTOREKO ETA SEKTORE AKUIKOLAKO BERRIKUNTZAN, IRAUNKORTASUNEAN ETA GIZA KAPITALAREN SUSTAPENEAN LAGUNTZEKO

- **Belaunaldi erreleboan jarri dute fokua da arrantzaren sektorerako eta sektore akuikolarako laguntzek, hori baita sektorearen erronka nagusietakoa**
- **Kontseilu berean onartu dira nekazaritzako eta basogintzako ekoizleen elkarte edo erakundeak sortzeko emango diren 400.000 euroren laguntzak**

2020an arrantza sektoreari eta sektore akuikolari emango zaizkion laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak bere azken kontseilu bileran. Laguntzen finantzaketarako 8.626.200 euro bideratuko dira, FEMP Programa Operatiboaren barruan. Bileran berean oniritzia eman zaio nekazaritzako eta basogintzako ekoizleen elkarte edo erakundeak sortzeko emango diren 400.000 euroren laguntzak arautzen duen Aginduari.

Arrantzaren sektorea eta sektore akuikola

Arrantzaren sektorerako laguntzak hauei zuzenduta daude: diruz lagundu daitezkeen inbertsio eta gastuak kontratatu, finantzatu edo gauzatu dituzten pertsona fisiko eta juridiko, ondasun komunitate, arrantza erakunde profesional, arrantza sektoreko ekoizleen erakunde eta arrantzale kofradiak eta beraien federazioak eta erakunde zientifiko eta teknikoak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Agindu honetan proposatutako laguntza lerroek jarduera hauen onurarako dira, besteak beste:

- Berrikuntza
- Aholkularitza zerbitzuak
- Giza kapitalaren sustapena, enpleguaren sorrera eta elkarrizketa soziala
- Arrantzale gazteen hasierako laguntza
- Osasuna eta segurtasuna arrantza ontzien barruko edo ekipo indibidualetako inbertsioetan
- Arrantzak itsas ingurunean duen inpaktuaren murrizketa eta arrantza espezieen babesera egokitzea
- Itsasoko biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea, eta konpentsazio erregimenak arrantza jarduera iraunkorren esparruan.
- Efizientzia energetikoa eta klima aldaketa arintzea.
- Merkaturatze neurriak
- Akuikulturako berrikuntza.

- Akuikulturako ekoizpenerako inbertsioak: Kudeaketa, ordezkapena eta aholkularitza zerbitzuak akuikulturako ustategietarako.
- Osasun publikoko neurriak

Agindu honetan araututako laguntzak 2020an eskuratu ahal izateko eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da Agindu hau indarrean sartzen den egunetik aurrera. Halere, Agindua argitaratu aurretik aurkeztutako proiektuak epe barruan aurkeztuzat joko dira, baldin eta 2020ko ekitaldiaren barruan sartu badira. Eskaerak bide elektronikoetatik aurkeztuko dira, euskadi.eus egoitza elektronikoan: https://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2020/femp-2020/web01-a2arraku/es/

Ekoizleen elkarteak

Era berean, 2015etik aurrera eratu eta hala aitortuak izan diren nekazaritzaren eta basogintzaren sektoreetako ekoizleen elkarte edo erakundeetarako eta horien batasun edo federazioetarako laguntzak onartu dira.

Laguntzetara bideratutako diru kopuruarekin aurkeztutako eskaera guztiei erantzuterik ez balego, ezarritako baremoaren arabera puntuaziorik altuena lortu duten eskaerei emango zaizkie laguntzak.

Irizpide berdinketa egonez gero, lehentasuna emango zaie 5 urtera begirako negozio planean bazkide kopuruan edota merkaturatutako produktu bolumenean hazkunderik handiena aurreikusten duten espedienteei. Eskaerak aurkezteko epea 2020ko urriaren 1etik 30era artekoa izango da, bi egun horiek ere barruan sartuta, eta bide elektronikoetatik aurkeztuko dira helbide hauetara:

http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/
http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK MILIOI BAT ETA SEIEHUN MILA EURO BIDERATU DITU COVID 19-AREN AURKA BORROKATZEKO I+G PROIEKTUETARA

- **Covid 19-aren aurka borrokatzeko aparteko laguntzen bidez, oinarrizko ikerketako eta industria-ikerketako I+G proiektuak finantzatzen dira**
- **Ikerketa sustatzeko eta osasun-larrialdiaren ondoriozko efektu sozioekonomikoak berreskuratzen laguntzeko onetsi diren premiazko neurrietako batzuk dira**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturretako sailburuak eskatuta, Covid 19-aren aurka borrokatzearekin lotura duten I+G proiektuak finantzatzeko zuzeneko dirulaguntzen baimena onetsi du. Laguntza-lerroa Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzak sustatu du.

Koronabirusari buruzko ikerketa-proiektuentzako zuzeneko dirulaguntzek Covid19-aren Aparteko Funttsaren babesarekin; funtsa Eusko Jaurlaritzak onetsi zuen, aurtengo martxoaren 24an, Euskadik bizi duen osasun- eta ekonomia-krisiaren aparteko egoerari aurre egiteko.

Honenbestez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zenbait enpresari eta agenteri zuzeneko dirulaguntza eman die, koronabirusaren aurkako borrokarari buruzko oinarrizko ikerketarako eta industria-ikerketarako 14 I+G proiektu finantzatzeko, bai eta osasun-larrialdiaren ondoriozko efektu sozioekonomikoak arintzeko eta berreskuratzeke ere.

Ikerketak eginkizun erabakigarria du, besteak beste: birusa detektatzeko eta diagnostikatzeko proiektuak abian jartzea, antibiralak garatzea, babes-ekipo berriak garatzea eta txerto posibleak garatzea, bai eta osasun-arloko profesionalentzat diagnostikorako eta segimendurako tresna digitalak garatzea ere, esaterako euskal enpresetan deseskalada seguruagoa eta jasangarriagoa eduki ahal izateko datuen analitikorako eta monitorizaziorako tresnak. Ere horretan I+Gri ematen zaion laguntzak neurri handi batean erabakiko du datozen hilotan gure gizarteak duen etorkizuna.

Pasa den martxoaren 24an, Covid 19-aren ondoriozko osasun-alarman, Eusko Jaurlaritzak onetsi zuen aparteko laguntza ematea, milioi bat eurokoa, ikerketarako eta garapenerako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko enpresa eta agenteei zuzendutako zuzeneko laguntzen bidez. Ikerketagaien proposamenak jaso eta aztertu ondoren, "premiaren, beharraren eta aukeraren hurrenkerari jarraikiz", Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzako Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzak erabaki du Covid-19aren Aparteko Funttsa 600.000 euroko partida batekin osatzea.

Gaurko Gobernu Kontseiluan, enpresa, agente eta proiektu onuradunen zerrenda onetsi da, bai eta dirulaguntzen zenbatekoaren banaketa ere.

<u>PROIEKTUAK</u>	<u>IKERKETA MOTA eta laguntzaren %</u>	<u>ERAKUNDE ONURADUNAK</u>	<u>DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA</u>
COVID-19-AREN AURREAN NORBANAKO SEROPOSITIBOAK IDENTIFIKATZEKO TEST SEROLOGIKO ESKALAGARRIAK GARATzea ETA BALIOZTATzea (bG-COVID)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	CIC BIOGUNE BIOZIENTZIETAKO IKERKETA KOOPERATIBORAKO ZENTROA ELKARTEA (G95229142)	130.000,00
COVID19-IKERLAN-GAILU MEKATRONIKOAK (COVID_ME)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	IKERLAN S. COOP. (F20079828)	15.019,52
COVID-19-AK ERAGINDAKO ARNAS DISTRESA DUTEN PAZIENTEETAN HC016 PRODUKTU ZELULARRAREN SEGURTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA BALIOESTEKO 1/2 FASEAREN AZTERLAN KLINIKOA. (COVIDCEL)	Industria-ikerketa (% 50)	HISTOCELL SL (B95317749)	90.000,00
COVID19-AREN KASUETAN TRESNA DIGITAL BATEN ETA OSASUN-ARLOKO PROFESIONALEN BIDEZ EGINIKO DIAGNOSTIKO ETA SEGIMENDU TELEMATIKOA (D&S-COVID19) (D&S-COVI)	Industria-ikerketa (% 50)	E PROCESS MED SL (B01564764)	60.000,00
METODOLOGIAK ETA BIG DATA TRESNAK COVID-19-AREN DATU KLINIKO ETA EPIDEMIOLOGIKOAK INTEGRATZEKO, PRESTATZEKO ETA USTIATZEKO (OSAC)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	VICOMTECH CENTRO DE TECNOLOGIAS DE INTERACCION VISUAL Y COMUNICACIONES FUNDAZIOA (G75051912)	66.021,06
		TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOA (G48975767)	66.000,55
		IKERLAN S. COOP. (F20079828)	66.024,24
HIDROXIKLOROKINA + AZITROMIZINAREN ERAGINKORTASUNA COVID-19-AGATK OSPITALERATU DIREN PAZIENTEETAN (AZIT)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	BIOARABA OSASUN-IKERKETAKO INSTITUTUA (G01573146)	61.924,20
COVID-19-AREN AURREAN ANTIGENO IMMUNOGENIKO BIRALAREKIKO GAINESPOSIZIOAGATIK SORTUTAKO ANTIGORPUTZAK DETEKTATZEKO TEST LASTERRA GARATzea (ARINTEST)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	GAIKER FUNDAZIOA (G48870380)	87.708,88
		CIC BIOGUNE BIOZIENTZIETAKO IKERKETA KOOPERATIBORAKO ZENTROA ELKARTEA (G95229142)	35.231,26
COVID-19-A DETEKTATZEKO PCR-AREN ALTERNATIBA GISA ALNPLIFIKAZIO ISOTERMIKOAREN ETA DETEKZIO ELEKTROKIMIKOAREN BIDEZKO KIT GENETIKO ULTRA-SENTIKORRA ETA LASTERRA (LAMP-C19)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	GAIKER FUNDAZIOA (G48870380)	76.777,25
		TEKNIKER FUNDAZIOA (G20545729)	50.799,24
COVID-19-A DIAGNOSTIKATZEKO ETA EUSTEKO SISTEMA OPTIMIZATzea (OptiDiC)	Industria-ikerketa (% 50)	IBERMATICA SA (A20038915)	75.000,00



SARS-COV-2-REN AURKAKO ANTIGORPUTZEN DETEKZIO LASTERRERAKO PLATAFORMA NANOTEKNOLOGIKOAK: IMMUNITATEAREN GARAPENAREN DIAGNOSTIKOA ETA EBALUAZIOA (Nano-CoV)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	BIOMATERIALETAKO IKERKUNTZA KOOPERATIBOKO ZENTROA ELKARTEA (G20788840)	90.000,00
ANTIGORPUTZEN ETA ANTIGENOEN MICROARRAY-AK GARATZEA, COVID-19- AREN DIAGNOSTIKORAKO ETA AZTERLAN EPIDEMIOLOGIKORAKO PLATAFORMA GISA (Biochip)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	BIOMATERIALETAKO IKERKUNTZA KOOPERATIBOKO ZENTROA ELKARTEA (G20788840)	104.123,38
		BIDONOSTIA INSTITUTUA ELKARTEA (G75020313)	17.565,88
		Asparia Glycomics SL (B75164509)	48.611,36
		NEIKER- NEKAZARITZA IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA SA (A48167902)	30.829,99
COVID-19-AREN EGOERAN ANALITIKAKO ETA ADIMEN ARTIFIZIALEKO TRESNETAN OINARRITZEN DEN INDUSTRIAKO ETA EKONOMIAKO ERABATEKO JARDUERARA BUELTZATZEA. (RAPID)	Oinarrizko ikerketa (% 100)	IKERLAN S. COOP. (F20079828)	80.031,87
		TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOA (G48975767)	80.016,30
		VICOMTECH CENTRO DE TECNOLOGIAS DE INTERACCION VISUAL Y COMUNICACIONES FUNDAZIOA (G75051912)	80.815,02
PRODUKTU SANITARIOAK DISEINATU ETA FABRIKATZEA, COVID-19-AREN KRISIALDIAN OSPITALEAK ASETZEAN ERABILTZEKO IRTENBIDE ALTERNATIBO GISA (ARNASTU)	Industria- ikerketa (% 50)	MIZAR ADDITIVE MANUFACTURING SL (B01486687)	60.000,00
		F.M. CONTROL SL (B01124593)	55.000,00
		MIZAR HEALTH, SL (B01575182)	12.500,00
COVID-19-AGATIKO KUTSADURA BIRALA MURRIZTEKO SUDURREKO GEL MUKOITSASGARRIA GARATZEA (COVIMUC)	Industria- ikerketa (% 50)	A3Z ADVANCED ANALYTICAL CONSULTING SERVICES SL (B95850129)	60.000,00

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

6,3 MILIOI BAT EURO BIDERATU DIRALAGUNTZETAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAIKIN PUBLIKO ETA KALEETAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO PLAN ETA JARDUNETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren Agindua, 2020ko ekitaldirako udal eta udalaz peko erakundeentzako zein gizarte-helburuak dituzten onura publikoko erakunde pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena, irisgarritasun-planak prestatu edo eguneratzeko eta hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-lanak exekutatzeko.

Laguntzen xedea da 1997ko Irisgarritasun Legeari bultzada ematea, otsailaren 4an Gobernu Kontseiluak onartutako Irisgarritasun Unibertsalaren EAeko Estrategiaren bidez zabaldu egin baitira Lege horren helburuak. Dirulaguntzak hauexek sustatzeko izango dira: 1) jada existitzen diren hiri-ingurune, ingurune publiko, eraikin, garraio eta informazio-sistemak pixkanaka egokitzea bilatzen duten irisgarritasun-planak prestatu eta eguneratzea; 2) udalen zein udalaz peko erakundeen irisgarritasun-planetan aurreikusitako hiri-ingurunearen zein eraikinen irisgarritasuna bermatzeko hobekuntza-lanak exekutatzeko eta, gizarte-helburuak dituzten onura publikoko erakunde pribatuen kasuan, hobekuntza-lanak exekutatzeko; eta 3) udalen zein udalaz peko erakundeen planetan adierazitako hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko egokitzapen-ekipamendua erosi eta instalatzea.

Jardun horietara 6,3 milioi euro bideratuko dira guztira. Kopuru horretatik, 300.000 euro 2020 ekitaldirako dira, 3 milioi euro 2021erako, eta gainerako 3 milioiak 2022. urterako. Diruz lagundutako jardunak 2020. urtean hasi behar dira, eta 2021eko azaroaren 15a baino lehen behar dute amaituta, planean kasuan; 2022ko urriaren 31n, berriz, hobekuntza-lanen kasuan.

Aurtengo deialdian, dirulaguntza eskatutako aurrekontuaren % 50 izango da gehienez, salbu eta irisgarritasun-planetarako eta haien eguneratzeetarako, % 75ekoa izango baita. Lanen barruan, lehentasuna izango dute igogailuak eta plataforma jasotzaileak instalatzeak (gehienez eskatutako aurrekontuaren % 75 diruz lagundu daiteke) eta degradatutzat edo birgaitze integratukotzat deklaraturako hiri-inguruneetan egiten diren interbentzioek (% 60). Edonola ere, udalerrri edo erakunde bakoitzak jaso dezakeen gehienezko diru kopurua 300.000 euro da.

Eskaerak aurkezteko bitarteko elektronikoak erabiliko dira, eta horretarako epea hilabete izango da Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik. Dirulaguntzei buruzko ebazpena epe hori amaitu eta gehienez sei hiletan emango da.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

235.000 EURO HANDITU DA TXONTA AUZOA BERRONERATZEKO ETA HAREN ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZA, ETA 2,5 MILIOIRA HELDU DA

Gobernu Kontseiluak baimendu egin dio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari Txonta auzoa berroneratzeko eta haren eraikinak birgaitzeko Eibarko Udalaren zuzeneko dirulaguntza 235.000 euro handitzea eta, beraz, 2.300.000 izatetik 2.535.000 eurokoa izatera pasa da. Halaber, 2022. urte arte luzatu da aurreikusitako jardunak exekutatzeko epea.

Era horretan, aintzat hartu da Eibarko Udalak egindako eskaera. Eskaera horrek agerian utzi du, alde batetik, egin beharreko obren kostua handia dela, batez ere energia-efizientzia eta eraikinen irisgarritasuna hobetzeari begira eta, bestetik, obra horien tamaina dela medio, erabakiak hartzeko prozesua luze eta bihurria izan dela, eta horri gehitu behar zaio COVID-19aren ondoriozko konfinamenduan geldirik geratu direla jarduerak.

Txonta berroneratzeko proiektua (221 etxebizitzak bat egin dezakete harekin), Bilboko Otxarkoagarekin batera, Horizon 2020 programaren bidez europar finantzaketa jasotzen duen hirigintza berroneratzeko ekimen batean kokatzen da: Open Gela.

Bi auzo horietako interbentzioak bereziki esperimentalak dira, eta aurreikusten dituzte hala irisgarritasun-baldintzak, segurtasuna eta energia-efizientzia hobetzeko jardun fisikoak nola gizarte-arloko jardunak, gizarte-kohesioa hobetzeari begira, langabezian dauden pertsonen prestakuntza eta birgaikuntzaren bidez eta produkzio-jarduerak zein hurbileko zerbitzuak bultzatuz eta sustatuz. Horretarako, arlo horietako bakoitzean, Auzoko Bulego bat erabiltzen da, "leihatila bakar" gisa funtzionatzen duena, eta laguntza orokorra ematen die egoiliar guztiei, hala alderdi teknikoetan nola administrazio, kontabilitate, finantza edo kudeaketan.

Ogasun eta Ekonomia

**HITZARMENA, ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ETA
EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEAREN ARTEKOA, EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE-EREMUAN 2020KO
NEKAZARITZA-ZENTSUA EGITEKO**

Gobernu Kontseiluak onetsi egin du Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Euskal Estatistika Erakundearen artean hitzarmena sinatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan 2020ko nekazaritza-zentsua egiteko.

2020ko nekazaritza-zentsua Europako eragiketa estatistikoa da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1091 Erregelamenduan (EB) arautzen da, nekazaritza-ustiatzei buruzko estatistika integratuei buruzkoan. Haren helburua da nekazaritza-sektorearen egiturazko parametroak ezagutzea, funtsean ekonomikoak, eta administrazio-erregistroen erabilera masiboaren bidez egingo da.

Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak biek dute ikerketa estatistiko horren inguruan interesa, eta, ahaleginak batzeko asmoz, ikerketa bakarra egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan; horrela, dagozkien estatistika-planetan aurreikusitako helburuak betetzeko behar den informazioa jaso eta, ondorioz, estatistika-eragiketan bikoiztasunik ez egoteko. Horrek, gainera, baliabide publikoetan aurrezteko ere ekarriko du.

Hezkuntza

2,8 MILIOI EURO DOKTORETZA-ONDOKO HOBKUNTZA-PROGRAMAREN BEKETARAKO

- **2019-20 ikasturte honetan, 60 ikertzaile dira doktoretza-ondoko laguntzen onuradun, programa honen bidez**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2020-2021eko ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko Hobekuntza-programarako laguntzak deitzen dituen agindua. Deialdi honek 2.778.500 euroko zenbatekoa dauka.

Programa honek doktoretza-ondoko lehen fasean dauden ikertzaileen hobekuntzarako bide bat eskaintzen du, gehienez ere hiru urteko iraupena izan dezakeena. Doktoreak lan-kontratua sinatu beharko du ikerketan diharduen euskal entitatearen batekin. Entitate hau izan daiteke unibertsitatea, ikerketa zentroa edo osasun arloko ikerketarako institutua, I+Gn egiaztatutako jarduna duena. Ezarpen-zentro honek egoitza Euskadin izan beharko du eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen agente gisa egiaztatuta egon beharko du.

Hiru jarduera-lerro ditu programak:

- Laguntza berrien lerroa (ikerketa orokorrean), ikertzaile doktoreen kontratu berriak finantzatzeko. Zenbateko osotik 921.600 euro gordetzen dira lerro honetarako.
- Laguntza-berritzeen lerroa, 2019-2020ko deialdian emandako laguntzak berritzeko. Zenbateko osotik gainerako 1.779.900 euroak bideratzen dira lerro honetara.
- Laguntza berrien lerroa (berariazko ikerketan) ikertzaile doktoreen kontratu berriak finantzatzeko. Zenbateko osotik 77.000 euro gordetzen dira lerro honetarako.

Lerroak:	Guztira
Laguntza berriak (ikerketa orokorrean)	921.600 €
Laguntza-berritzeak	1.779.900 €
Laguntza berriak (berariazko ikerketan)	77.000 €
Guztira	2.778.500 €

Laguntza-berritzeak eta Laguntza berriak (ikerketa orokorrean), honako ezagutza-arlo hauetako doktoretza-ondoko ikerketak burutzeko eskatu ahal izango dira: Oinarrizko Zientziak; Bizitza eta Osasun Zientziak; Ingeniaritzak, Teknologia eta Arkitektura; edo Gizarte Zientziak eta Humanitateak.

Laguntza berriak (berriazko ikerketan): Datorren 2020-2021 ikasturterako deialdi honek neutronika eta partikulen azelerazioan ikerketa bultzatzeko berriazko diru-laguntza lerroari eusten dio. Ikerketa arlo hau interes berezikoa da egun Europako Batasunean eta bereziki Euskadin, balio estrategiko handia baitu EAEko zientzia, teknologia nahiz industriaren etorkizunerako. Gainera, Euskadiko I+G+b garatzeko ere abagunea eskaintzen du. Gure erkidegoko zientzia-komunitatea arlo honetan sendotzea eta areagotzea lehentasunezko helburua da, Europako Batasunak ESS Lund espalaziozko neutroi iturriaren inguruan ezarri dituen helburu zientifikoak indartzeko.

Doktoretza-ondoko kontratuak

Gorago aipaturiko ezarpen-zentroren batekin lan-kontratua sinatzen duen ikertzaile doktorea izango da laguntza hauen onuraduna. Baina ezarpen-zentro horrez gain, doktoreak atzerriko zentro bat ere izango du, eta bolada baterako hara lekualdatuko da bere ikerketa lana burutzera. Atzerriko zentroak ere unibertsitate edo ikerketa-zentroak izango dira.

Kontratua sinatzearekin, laguntza emateko arrazoi izan den ikerketa-proiektua eskusibotasunez egiteko konpromisoa hartzen du doktoreak. Kontratu honen iraupena urtebetekoa izango da, baina urtebeteka luzatu ahal izango da berrituz gero, gehienez ere 36 hilabete arte.

36 hilabete horiek bi fasetan antolatuko dira: lehenengoa 24 hilabetekoa izango da gehienez, eta ikertzailea atzerriko ikerketa-zentro batera joango da, bere ezarpen-zentroa utzita, ikerketa-proiektu bat gauzatzeko. Bigarren fasea, berriz, 12 hilabetekoa izango da gehienez; fase horretan, ikertzailea Euskadiko ikerketa-talde batean sartuko da. Lehen bi urte horietan laguntzaren onuradunak atzerriko zentrori urtean joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko osagarri bat izango du.

2019-2020 ikasturte honetan, 60 euskal ikertzaile dira doktoretza-ondoko laguntza hauen onuradun, iazko deialdiari esker: 24 ikertzaile, onuradun berriak dira, eta gainerako 36 ikertzaileek laguntza berri egin dute.

Programa honen bidez, Hezkuntza Sailak ikertzaileen prestakuntza kalitatearen eta eraginkortasunaren aldeko apustua egiten duen eredu bat sustatu nahi du. Era berean, urtero ebaluatu daitekeen lan-kontratu baten bidez, ikertzaileak mundu profesionalaren errealitatera hurbiltzen ditu, eta zientziaren eta teknologiaren alorrean belaunaldi berri bat sortzea sustatzen du.

Hezkuntza

200.000 EURO KONGRESUAK ETA ZIENTZIA BILERAK EGITEKO LAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilera presentzialak antolatzeko dirulaguntzak ematen dituen agindua. Kongresu eta bilera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan burutu beharko dira, 2020ko bigarren seihilekoan. Deialdi honek 200.000 euroko diru-kopurua du.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente kreditatuak, haien kategoria edozein dela ere.

Diru-laguntza hauek, honako gastu arrunt hauek ordaintzeko erabili beharko dituzte: kongresu edo bileraren antolamendua eta zabalkunde gastuak, hizlari gonbidatuen parte-hartze gastuak, edo kongresuen kasuan, ekarpen zientifikorik onenari eman ohi zaion saria, beste hainbat gasturen artean. Jardunaldiok 2020ko uztailaren 1a eta abenduaren 31 artean burutu beharko dira.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, bereziki prestakuntzakoak diren ikastaroak eta jarduerak, hala nola irakaskuntzako eta ikaskuntzako trebakuntzarako prestakuntza-jardunaldiak, tailerrak edo mintegiak, besteak beste.

Biltzar eta bilera zientifikoaren eremu horretan eragin handia izan du COVID-19 pandemiak, eta formatu berriak sartu dira, unibertsitateek eta ikerketa-zentroek egiten duten ikerketaren emaitzak zabaltzeko. Horregatik, salbuespen gisa, laguntzen deialdi honek aukera ematen du kongresu eta bilera zientifikoak modu birtualean edo on-line finantzatzeko.

Osasuna

OSAKIDETZAK MATERIAL SANITARIOA HORNITUKO DU, PANDEMIAREN AGERRALDIAK EGONEZ GERO EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAK HORNIKUNTZAK DITUELA ZIURTATZEKO

Gobernu Kontseiluak baimena eman dio Osakidetzari material sanitarioaren erosketa, biltegitratzea eta logistika kudeatzeko eskumena izateko, Covid-19aren aurkako borrokari arreta lehen lerroan ematen dieten euskal udalei, Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundiei **behar dituzten produktuak emateko, besteak beste mantalak, eskularruak edo maskarak, haien bidez pandemiak izan ditzakeen agerraldiei aurre egiteko.**

Hala, Osakidetzak material horren kudeaketaren ardatz gisa jardungo du, eta horrek material horien kontratazioa eta erosketa arrazionalizatzen eta antolatzen lagunduko du, **materialaren eta ekipamenduaren eraginkortasun handiagoa eta stock estrategikoa** lortzeko, euskal sektore publikoaren beharrei arreta eta estaldura logistikoa emateko.

Osakidetzak honako erakunde publiko hauen esku jarriko du material sanitarioaren hornikuntzarako eta logistikarako duen gaitasuna:

- Eusko Jaurlaritza eta haren mendeko entitate eta erakundeak.
- Foru-aldundiak, eta bereziki beren eskumeneko eremuan dagoen sektore soziosanitarioa, haren kalteberatasuna kontuan hartuta.
- Autonomia-erkidegoko udalak eta udalaz gaindiko erakundeak, bai eta haien mendeko erakunde eta entitateak ere.

Azkenik, lurralde osoan materiala biltegitratzen eta banatzen dela bermatzeko, Osakidetzak gaur egun dagoen zentro logistikoa jarriko du eskuragarri, hala eskatzen duten entitateentzat harrera, biltegitratzea eta banaketa zentralizatzeke.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 2.000.000 EURO ONARTU DITU ENPRESETAN EUSKARA PLANAK EGITEN LAGUNTZEKO, LANHITZ DEIALDIAREN BITARTEZ

- **Deialdi honek iaz baino 200.000 euro gehiago izango ditu euskararen presentzia eremu sozio-ekonomikoan laguntzeko**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, bere gaurko bileran, 2.000.000 euro onartu ditu Lanhitz deialdirako, iaz baino 200.000 euro gehiago. Diru-laguntza lerro honen helburua da Euskadiko enpresei laguntzak ematea euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko beren lantokietan. Hala, laguntza hauek jasoko dituzten enpresek diru kopuru bat izango dute euskara planak garatu ahal izateko. Iazko deialdiaren bitartez, 132 enpresa lagundu ziren deialdi honen bidez, laguntzetara aurkeztu ziren guztiak.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren ildo estrategikoetako bat euskara lan-munduan sustatzea, eta deialdi hau eremu sozio-ekonomiko pribatuan euskararen erabilera indartzeko duen bide garrantzitsuenetako bat da. Lerro honen bidez, laguntzen dira EAEn lantokiak dituzten entitate pribatuen lehen euskara-planaren diseinua egiten, baita kudeaketa-plana ere.

Berez, lerro hau berariazko laguntza bat izan nahi du euskara-planak modu sistematizatuan diseinatzen, jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzeko eratu zen Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) ezarritako helburuak eta jarduerak enpresa pribatuetan gauzatu ahal izateko. Iaz, 132 enpresa lagundu ziren deialdi honen bidez, hau da, laguntza eskatu zuten guztiak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 350.000 EUROKO PARTIDA ONARTU DU KULTUR JAIALDIEN PROGRAMAZIOA DIRUZ LAGUNTZEKO

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren deialdi honen bidez, iaz diziplina desberdinetako 28 jaialdi antolatzen lagundu zen**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 350.000 euroko partida bideratuko du kultur jaialdiak bultzatzeko, iazko kopuru bera. Deialdi honen bidez, musikarekin, literaturarekin, antzerkiarekin, dantzarekin, ikusizko arteekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako proposamenak babestuko dira. Iaz, deialdi honen bidez, hainbat kultura-arlotako 28 jaialdi babestu ziren.

Laguntza deialdi hau 2017an berrantolatu zen, eta ekimen pribatuz antolatutako jaialdietara soilik zuzenduta dago; beraz, erakunde publikoek antolatutakoak deialditik kanpo geratzen dira. Aurreko urteetan ez bezala, non deialdia jaialdi txiki eta handientzako atal banatan bereizten zen, aurten deialdia kultura-esparruen arabera banatuko da. Halaber, aurreko edizioarekin alderatuta, berrikuntza nagusietako bat da balorazio-baremoetan garrantzi handiagoa emango zaiola Euskadiko artisten eta konpainien presentziari.

Laguntza hauen azken deialdian, 28 jaialdik jaso zituzten laguntzak. Loraldia Jaialdia (30.774 euro), Zinemakumeak Gara (10.858 euro), Zinegoak Jaialdia (31.284 euro) edo Aitzina Folk (22.400 euro) izan ziren iaz diruz lagundutako jaialdietako batzuk. Era berean, deialdi honetaz gain, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen ditu beste zenbait kultur jaialdi, diru-laguntza izendunen bidez.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 330.000 EURO BIDERATU DITU EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREKO LIBURUTEGIETAN IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO JARDUERETARA

- **Lerro honen bidez, 162 udal-erakundek jaso zuten iaz diru-laguntzaren bat**

Eusko Jaurlaritzak 330.000 euroko partida onartu du, bere gaurko Gobernu Kontseiluan, irakurketa sustatzeko Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi publikoetan. Partida horrek 70.000 euroko gehikuntza dakar iazko deialdiarekin alderatuta; iaz 162 diru-laguntza eman ziren lerro honen bidez.

Diru-laguntza deialdi honen xedea da liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei laguntza ekonomikoa ematea, bai eta udal-liburutegi publikoen arloan eskumena edo eginkizunak dituzten toki-erakundeei ere, beti ere liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartuta badaude. Laguntza-lerro hau Eusko Jaurlaritzak Sareko liburutegiei laguntzeko dituen hiru lerroetako bat da, liburuak erosten laguntzeko deialdiarekin eta liburutegietan teknologia berriak garatzeko laguntza-lerroekin batera.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea sortu zuen 2004an, Euskadiko liburutegi publiko guztiak biltzeko eta zerbitzuak hobetzeko sinergiak sortzeko. Sare hau udal titulartasuneko liburutegiek osatzen dute nagusiki, nahiz eta zerbitzu honetan udalarenak ez diren liburutegiak ere sartzen diren (Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Artxibo Historikoa, habe, Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, Zarauzko Photomuseuma, Arabako Foru Aldundiaren menpeko liburutegiak...).

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 160.000 EURO BIDERATUKO DITU EUSKAL KULTURA-ONDAREARI BURUZKO IKERKETA-PROIEKTUAK LAGUNTZERA

- **Aurreko deialdiaren bidez, 12 ikerketa-proiektu babestu ziren, besteak beste, Gerra Karlistetako gudu-zelaiei eta ikus-entzunezko euskal ondareari buruzkoak**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 160.000 euroko partida bideratuko du 2020. eta 2021. urteetan euskal kultura-ondarea babesteko ikerketa-lanak egitera. Gobernu Kontseiluak gaur onartutako deialdi honen bidez, ikertutako ondarea ikusarazten eta zabaltzen lagunduko duten ikerketa-proiektuak babestuko dira.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren mendeko Euskal Kultura Ondarearen Zentroa arduratzen da laguntza hauek sustatzeaz, euskal kultura-ondarearen inguruko ikerketan interesa duten ikertzaileei baliabideak eskainiz kultura-ondarearen ikerketa-lanak egin ditzaten.

Kultura-ondarea ikertzeko aurreko diru-laguntza deialdiaren bidez, 12 ikerketa-proiekturi eman zitzaizen laguntza ekonomikoren bat. Ekimen gehienek 12.500 eta 13.500 euro arteko laguntza jaso zuten. Gerra Karlistetako gudu-zelaiak, Gasteizko San Bizente gazteluko arkeologia, Frantziako artxiboetako ikus-entzunezko euskal ondarea edo Euskadiko lehen 'intra ecclesiam' hilerriak izan ziren ikertutako eremuetako batzuk.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 100.000 EURO INBERTITUKO DITU EUSKAL ITSAS ONDAREA BABESTEKO, EZAGUTZERA EMATEKO ETA BALIOA EMATEKO PROIEKTUAK LAGUNTZEN

- **Ontziak museoratzea, ontziolak eraberritzea edota egurrezko ontziak egokitzea dira diruz lagundu daitezkeen ekimenetako batzuk**

Eusko Jaurlaritzak onartu du, bere gaurko saioan, 100.000 euroko aurrekontua euskal itsas ondarea babesteko, hedatzeko eta horri balioa emateko. Diru-laguntza deialdi hau 2018an jarri zen abian eta aurten lau modalitate izango ditu: egurrezko ontziak museoratzea; jendeari zerbitzua emateko egurrezko ontziak konpontzea eta armatzea; lehorreko instalazioei (ontziolak, lonjak eta ontziralekuak bezalako beste elementu batzuk) balioa ematea; eta egurrezko ontziak konpontzea eta egokitzea. Aurten, Covid 19k sortutako egoera dela-eta, ez da diruz lagunduko itsas-ondarearen balioa nabarmentzeko ekimenak antolatzea.

Historikoki itsas ondarea behar bezala babestu ez denez, deialdi honen bitartez oraindik geratzen dena babestu nahi duten ekimenak bultzatuko dira. Izan ere, motorrak eta teknologia berriak sartzean edota materialak (beira-zuntza eta plastikoak) eta formak (industrialak, tokiko formak kontuan hartu gabe) aldatzean, sektorea eraldatzen joan da eta bere elementu historiko asko galdu ditu. Horrela, diru-laguntzek arreta berezia jarriko dute norbanakoek eta elkarteek dituzten egurrezko ontzi tradizionalak zaintzen, gero eta gutxiago baitaude euskal portuetan.

Diru-laguntza honen bitartez, itsas ondareari lotutako elementuak babesteko, ezagutzera emateko edo horiei balioa emateko helburuarekin egingo diren inbertsioen % 50 ordaindu ahal izango da gehienez. Hona hemen laguntzen barruan jaso diren modalitateak:

1. Egurrezko ontzietan lanak egitea, horiek museoratzeko helburuarekin.

Diruz lagundu ahal izango dira:

- Esku hartu edo zaharberritu aurretik irizpideak finkatzeko behar diren azterketak edota analisiak.
- Ontzien barruko zein bertan sartzeko segurtasuneko eta sarrerako obrak edo elementuak.
- Ontziaren izaerarekin loturarik ez duten eta interpretaziorako beharrezkoak diren kartelak, taulak eta erakusketako beste edozein mekanismo.
- Bertan ez dira sartuko ontziaren zaharberritze-lanak edo egitura-ekipamenduak (motorrak, belak, mastak...).

2. Jendeari zerbitzua emateko egurrezko ontziak armatzea eta prestatzea.

- Segurtasuneko eta nabigazioko ekipamendu-gastuak barne hartzen dira, baita ontziari balioa emateko gastuak ere (halakorik baleude).
- Nabigatzeko behar diren egitura-obra.

3. Lehorreko instalazioak balioestea: ontziolak, lonjak eta portuko elementuak. Ontziralekuak bezalako egitura txikiagoak ere barne hartzen dira. Balioa handitu dezaketen elementuek hala jasota eta baloratuta egon beharko dute Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren kultur ondareko katalogoetan. Modalitate horren barne honako hauek biltzen dira:

- Aurretiko azterketak: esku hartzeko irizpideak zehazteko behar diren azterketa historikoak, arkeologikoak edota ondarezkoak.
- Balioa ematearekin bateragarri ez diren zatiak edo elementuak ezabatzea.
- Eraikinak erabiltzeko prestatzea. Proiektu teknikoak, obren zuzendaritza eta instalazio orokorrak.
- Burutu beharreko museoratzeari edo balioa emateari lotutako azpiegiturak, taulak eta kartelak.
- Ez dira zaharberitze- eta urbanizazio-obra barne hartzen.

4. Egurrezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuak. Nabigatzeko ontziak behar dituen lizentzien eta baimenen tramitazio-gastuak barne hartzen dira, baldin eta esku-hartzea ontziaren ezaugarrietara mugatzen bada eta ondare-balioak kaltetzen ez badira.

lazko laguntza deialdiaren bidez, 26 ekimen babestu ziren. Albaola Elkarte, Bilboko Itsasmuseuma edo Lekeitioko eta Santurtziko udalak izan ziren laguntza deialdi honen onuradunetako batzuk.

Presidencia

EL GOBIERNO COLABORA CON LA COMISIÓN DE LA VERDAD DE COLOMBIA EN LA ORGANIZACIÓN DE UN ENCUENTRO SOBRE LAS VÍCTIMAS OBLIGADAS A EXILIARSE

- **La colaboración se realizará a través de HEGOA-Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional de la UPV/EHU**

El Gobierno Vasco colaborará con la Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición en Colombia en la organización de un ***Encuentro por la verdad sobre el Exilio, las víctimas en el exterior y la población retornada*** a celebrar en Bilbao. La colaboración se realizará a través de HEGOA-Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional de la UPV/EHU, al que el Consejo de Gobierno ha concedido hoy una subvención de 150.000 euros, que será gestionada por la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos.

La ayuda hoy aprobada permitirá a la Comisión de la Verdad poder cumplir su mandato en relación con las víctimas del conflicto que se vieron obligadas a exiliarse y que se encuentran en el País Vasco, resto del Estado Español y en otros países de Europa, (Francia y Bélgica principalmente).

Por su parte, el Instituto HEGOA viene contribuyendo con esta comisión colombiana en la atención a las víctimas exiliadas, garantizando de esta forma la protección a todas las personas que, en el contexto de conflicto en Colombia, cruzaron las fronteras nacionales, viendo su vida, su seguridad o libertad amenazadas por la violencia generalizada, los conflictos internos y la violación masiva de los derechos humanos.

La Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición en Colombia, se creó en el marco del Acuerdo Final para la terminación del conflicto y la construcción de una paz estable y duradera, suscrito en 2017 entre el Gobierno de Colombia y las Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia. Se constituyó como un mecanismo de carácter temporal y extrajudicial para conocer la verdad de lo ocurrido en el marco del conflicto armado, contribuir al esclarecimiento de las violaciones e infracciones cometidas durante el mismo, y ofrecer una explicación amplia de su complejidad a toda la sociedad.

Ello implica, también, dar cuenta del impacto del conflicto en las víctimas que se encuentran en situación de refugio y/o exilio, de la vulneración de sus derechos, y de cómo el conflicto armado cruzó las fronteras junto con las personas.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO CONVOCA LA SEXTA EDICIÓN DE LOS PREMIOS “ELKARLAN” PARA RECONOCER PROYECTOS SOCIALES CAPACES DE GENERAR VALOR PÚBLICO

- En total se repartirán 36.000 euros para cuatro iniciativas sociales que destaquen por su innovación y sean promovidas por la ciudadanía
- Entre los objetivos de los premios “*Elkarlan*” está también, el de ir consolidando en Euskadi una red de aprendizaje y colaboración en la cogeneración del valor público

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la “*Sexta convocatoria de los premios Elkarlan de proyectos innovadores de cogeneración de valor público del Gobierno Vasco para el año 2020*”. El objetivo de estos premios es reconocer proyectos que promuevan de forma innovadora la generación de valor público compartido para la satisfacción de necesidades y retos sociales. Además, como ya se hizo en la quinta edición, el Gobierno Vasco pretende que el premio también contribuya “*a la transferencia de esas fórmulas distintas de favorecer la participación a otros agentes, de forma que se vaya consolidando en Euskadi una red de aprendizaje y colaboración en la cogeneración de valor público*”.

Los premios “Elkarlan” 2020 reconocerán cuatro iniciativas sociales que destaquen por su innovación en la generación de valor público en alguna de estos seis ámbitos de actuación:

- Salud
- Medio ambiente
- Desarrollo económico
- Aprendizaje-cultura
- Cohesión social
- Gobernanza, cultura democrática y participación en las decisiones públicas

